


Gipuzkoako Gurutze Gorriak gazteei informazio sexuala eskaintzeko zerbitzu bat badu. Urtean bi mila eta bostehun dei inguru jasotzen ditu. «Deitzen duten hamar lagunetik bat homosexuala izaten da, eta batipat HIESari buruzko galderak egiten dituzte», Juan Maria Urruzunok adierazi digunez. Gipuzkoako Gurutze Gorriko Osasun Programako teknikaria da bera.

Urruzuno: «Homosexuelek HIESari buruz galdetzen dute bereziki»

Gazteek sexualitateari buruz dituzten galderei erantzuteko helburuarekin sortu zuen Gipuzkoako Gurutze Gorriak 943-32 04 44 telefonoaren bestaldean den zerbitzua. Astelehenerik ostiralera bitartean izaten da zabalik; goizetan bederatzietatik ordu batera, eta arratsaldetan lauretatik zortzietara. Espainiako estatuan Gipuzkoan baino ez du zerbitzu hau Gurutze Gorriak; duela hiru urte sortu zen Gipuzkoako Diputazioaren laguntzaz.

Urtean zehar dei ugari jasotzen dute. «Urtero bi mila eta bostehun dei inguru», adierazi digu Juan Mari Urruzunok, Gipuzkoako Gurutze Gorriko Osasun Programako teknikoak. Homosexualen deirik ere jasotzen dute. Urruzunoren hitzetan, «deitzen duten hamar lagunetik bat izaten da». Homosexuali dagokienez, gizonezkoek emakumezkoek baino gehiago deitzen dutela adierazi digu Urruzunok. Beronen esanetan, HIES-ari buruzko galderak egiten dituzte batipat. «Heterosexualek ere egiten dituzte gaitz honen gaineko galderak, baina batez beste homosexualek galdetzen dute gehiago». Gauzak horrela, «badirudi homosexua-



Juan Mari Urruzuno da zerbitzuaren arduraduna. ANDER GILLENENA

«Deitzen diguten hamar lagunetik bat izan ohi da homosexuala», adierazi digu zerbitzuaren arduradunak.

lek gaitz hori kutsatzeko beldur handiagoa dutela. Zer neurri hartu aholkatzen diegu guk».

Hala ere, eta Urruzunoren hitzekin jarraituz, «homosexualitateari buruzko gai jakin batzuei erantzuteko mediorik ez dugunean, Bartzelonako Telefono Arrosara deitzeko esaten diegu».

Bartzelonako Gay-Lesbian koordinadorak antolatutako zerbitzua da Telefono Arrosa. «Oso ondo antolatua dago: baliabide ugari dute beren arazoak, esku-bideak eta abar tratatzeko; aholkularitza juridikoa, seropositiboentzako mediku kabinetea eta abar dituzte. Oso aurreratua da».

ez ahaztu!

LAGUNTZA ZERBITZUAK

● Aldarte

(Psikologia kabinetea, lege aholkularitza eta askatasun sexualari buruzko dokumentazio zentroa)
Buenos Aires kalea, 2-3. ezk, Bilbo
Telefonoa: (94) 423 72 96
Ordutegia: 10.00etatik 13.00etara eta 17.00etatik 20.00etara

● Gipuzkoako Gurutze Gorriko hezkuntza sexualeko telefonoa

(Batez ere gazteei begira jarri dute, eta sexuarekin zerikusia duen edozein gairi buruzko informazioa eta aholkularitza ematen dute)
Telefonoa: (943) 32 00 44
Ordutegia: 09.00etatik 13.00era eta 16.00etatik 20.00etara, astelehenerik ostiralera

ELKARTEAK

Araba

● Arabako Lesbianen Asanblada (ALA)

Telefonoa: (945) 28 18 42

Bizkaia

● Bizkaiko Lesbiana Feministen Kolektiboa

Jardines kalea 6-3., Bilbo
(Asteazkenean 20.00etatik 22.00etara biltzen dira)
Telefonoa: (94) 415 54 83

● Agerian Lesbiana Taldea

Jardines kalea 6-3., Bilbo
Telefonoa: (94) 415 54 83
(Asteartean 20.00etatik 22.00etara biltzen dira)

● Bizkaiko EHGAM

Txokolanda elkartea
Solokoetxe eskaileretan, Bilbo
Telefonoa: (94) 415 07 19

Gipuzkoa

● Gipuzkoako Lesbiana Feministen Kolektiboa

Duque de Mandas kalea-Udal Alhondiga
985 postakutxa, Donostia 20.080
Telefonoa: (943) 32 12 76
(Asteartean 20.00etatik 22.00etara biltzen dira)

● Gipuzkoako EHGAM

1.632 postakutxa, Donostia 20.080
Telefonoa: (943) 42 16 08

Nafarroa

● Lumatza Lesbiana Taldea

Navarrería kalea, 15-1., Iruñea
(Asteartean biltzen dira 20.00etatik 22.00etara)

● Nafarroako EHGAM

1.157 postakutxa, Iruñea
Telefonoa: (948) 21 11 73

**LANBROA
TABERNA**



Descalzos, 7 IRUÑEA

**JARAUTA, 8
IRUÑEA**



SORGINE

PELOTA, 4 ALDE ZAHARRA BILBO

HERRIA taberna BESTE bar

Euskalerrriaren Askatasunaren bidean
Askatasun sexuala ere aldarrikatuz.

IKATZ KALEA (Alde Zaharra) DONOSTIA

HIGH

(LA NAJA, 5 - BILBO)

**Antolatzailea:
GURUTZE
GORRIA**

Laguntzailea:



INFORMAZIO
SEXUALA,
BAI, ESAN?

320444

INFORMAZIO
SEXUAL
ZERBITZUA

HERNANIKO JARKI TABERNA

Aukera ezin hobea pintxoetan
eta girorik jatorrena zuretzat.

ZATOZ HONA!!!

KARDABERAZ KALEA, 24 Tfnoa: 55 04 70 HERNANI

rigono

Zure taberna,
zure jendearekin
egoteko.

DONOSTIA